

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Etxebarri



Aurkibidea

Udalerria: Etxebarri

Sarrera



Bilbo Handia eskualdeko herria. XX. mendera arte nekazaritza izan zen udalerriko jarduera ekonomiko nagusia eta 1000 biztanle baino gutxiago zituen herri txiki bat baino ez zen. Gaur egun zerbitzuak eta industria dira nagusi. Herriak izan duen bilakaeraren ondorioz, euskarak ere beheranzko joera izan du, bertako jatorrizko euskalkia ia galbidean egon arte.

Argazkia: [Wikimedia](#)

- **Biztanleak:** 10.614
- **Euskaldunak:** %22,54

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **7**
- Zintak: **7**
- Pasarteak: **32**
- Transkribatutakoak: **2**
- Audioak: **0**
- Bideoak: **32**

Proiektuak

- Etxebarriko Ahozko Ondarea
- Euskal Herriko Ahotsak
- IRLAren Bizkaiera Bilduma

Hizlariak

Jose Luis Dobaran Aranguren (1937)

Eusebio Egiguren Madariaga (1917)

Brauli Elorrieta Orue (1941)

Gomezena baserrian jaio zen. Hamabi urtera arte eskolan ibili zen eta ondoren etxeko zereginen ardura izan zuen. Hogei urterekin ezkondu eta kalera joan zen bizitzera. Hiru seme-alaba izan ditu. Ume euskaldunentzat aldizkaria eta ekimenak antolatzen aritu izan da, baita kulturaren arloan ere.

Andres Ereño Atutxa (1917)



Etxebarriko Legizamon auzoan jaio zen eta hamar neba-arrebatatik zortzigarrena izan zen. Gurasoak ere Etxebarrikoak bertakoak zituen. Andres gaztea zenean, bere esanetan herri alaia zen Etxebarri. Andres bera ere herriko dantza-taldean ibili zen gazte sasoiko urteetan. Hala ere, laster utzi behar izan zuen eskola eta aisialdia baserrian laguntzeko, ama gazterik hil zitzaien eta. Gerra sartu zenean, Bilbon ezkutatu behar izan zuen, soldadu eramanez ez zezaten. Gerra amaitutakoan, Firestonen hasi zen beharrean eta bertan ezagutu zuen bere andrea izango zena. Galdakaora ezkondu ziren eta bertan bizi zen elkarriketa egin genionean. Etxebarriko giroaz, eskolaz, familiaz eta gerra garaiaz hitz egin genuen berarekin egon ginenean, besteak beste.

Carmen Gerrikabeitia (1936)

Joseba Andoni Larrabe Elorrieta (1945)

Rosario Zabala (1908)

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

1. Aisia

1.1. Urtero pilotari onak

- **Hizlaria(k):** Ereño Atutxa, Andres
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxazarra, Ainhoa
- **Erref:** EBI-001/021
- **Iraupena:** 0:01:28. **Hasi:** 00:28:45. **Bukatu:** 00:30:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

- **Gaia(k):**

Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

Aisia » Kirola » Pilota

- **Laburpena:** Erromeria asko egoten ziren. Jaietan urtero pilotari onak egoten ziren: Jose Iturriaga eta kontrarioa Jose Elorriaga.

Transkripzioa

-Eta hor, Etxebarrin, egon zan erromerie, ezta? Domeketan...

-Bai, asko.

-Asko?

-Bai. Esango tsut. Urte guztietan egoten... pelotariak. Bai, bai.

-Jaietan?

-“De categoría”. Ta, lantzean behiñen, beste leku batzutat kontrataute. Eztakizu?

-A, bai. Pelotari onak?

-Bai.

-A bai, e? Ta zeintzuk? Badakizu zeintzuk? Badakizu zeintzuk pelotariak, izenak, pelotarienak, onak?

-Bai.

-Zeintzuk?

-Dakit, Jose Iturriaga ta... Jose Iturriaga ta bestea kontrarioa. Horrexek pelotariak “de categoría”, e. Bai, bai. Anunziaute ta, egoten zan. Jose Iturriaga ta bestea... Jose Elorriaga bat ta Jose Iturriaga bestea.

-A, beitu...

-Horrek ixen zien pelotariak biek; onak, ademas. Ta horixe.

1.2. Igandeetako erreka ondoko egun pasa

- **Hizlaria(k):** Ereño Atutxa, Andres

- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxazarra, Ainhoa

- **Erref:** EBI-001/025

- **Iraupena:** 0:00:46. **Hasi:** 00:35:45. **Bukatu:** 00:36:31

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

- **Gaia(k):**

Aisia

- **Laburpena:** Erreka ondoan dago Etxebarri, eta urak gutxitzen zirenean landa lehor-lehorrak geratzen ziren, eta jendea Basauritik eta beste inguruetatik bazkariarekin eguna pasatzera joaten zen hara.

Transkripzioa

-Etxebarri. Erreka bat. Erreka bakizu zer dan?

-Bai.

-Bajatuten zan ure ta lotuten zan landatzarrak, landak, landak siku-siku. Ta jentea Basauritik ta beste ingurutatik egune pasetan. Bazkarie eroan ta hantxe jentea.

-Bai e?

-Bai, bai!

-A beitu!

-Bai. Ez zan egon konpromisorik, e... Ta danak batera... Hori akordetan naz ni, dana, dana.

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Firestonen gurpilak egiten (EBI-001/013)

Firestonen, gurpilen barrukoa egiten zuen. Fabrikan bertan ikasi zuen lanean. Andrea fabrikan ezagutu zuen. Monjetatik irten eta behar barik egon zen andrea.

2. Eskolako garaia (EBI-001/014)

Etxebarriko eskola Etxebarrin, elizaren ondoan zegoen. Mutilak behean eta neskak goian, aparte. Oso maisu ona izan zuten; ez euskalduna, baina ondo irakasten zuen eta oso txukuna izan zen.

3. Baserri inguruan dena egiten zuten euskaraz (EBI-001/017)

Gerra ostean politikoak sartu ziren, Etxebarri beldurrez isilduta geratu zen. Batzuk kartzelara eraman zituzten. Gurasoekin beti egin du euskaraz, gero ohitura galdu badu ere. Auzokoek, baserri ingurukoek euskaraz egiten zuten dena.

4. Berak behiak gobernatu, arreba plazara (EBI-001/018)

Gerra denboran utzi zuen eskola. Lan asko egin du ganaduekin: hiru behi zituzten. Arreba zaharrena joaten zen Bilboko plazara egunero barazkiak saltzera (bendeja). Arreba horren ilobak ditu.

5. Anaia zaharrenak Basconia-ko langileak (EBI-001/019)

Labrantza handia ez zen izan, baina jende asko ziren jateko. Anaia zaharrenak Basconia-n sartu ziren; lehenengo zaharrena sartu zen, gerran ertzaina izandakoa; ama asko poztu omen zen orduan. Lanean edadeko andreak zituen lankide Andresek eta haiek kontaktzen zizkioten familiako kontuak.

6. Erromeria plazan (EBI-001/022)

Erromeriarako kontratatu egiten zen musika. Plaza erdi-erdian egoten zen. Bilbotik etortzen zen musika. Orduan Etxebarri popularra izan zen.

7. Ezpata-dantzaria izan zen (EBI-001/024)

Franco aurretik Etxebarri alegrea zen, euskalduna. Basaurin maketoak zeuden. Jende asko nahastu egin zen. Ezpata-dantza egiten zuen berak. Batzokian ikasi zuen; Patxi izan zen irakaslea. Neskak eta mutilak zeuden taldean. Hiru-lau neskato egon ziren josten, eta dantzan irakasten aritzen ziren. Dantzarako praka zuriak eta gerrikoa janzten zituzten.

8. San Esteban eta Santa Ana (EBI-001/026)

San Esteban ospatzen da Etxebarrin. Eskola zentroan dago. Santa Ana de Etxebarri ermita bat dago. Hor errota bat egon zen. Ganadua bedeinkatzen zen egun batean Santa Ana ermitaren inguruan.

9. Abere-hiltegia (EBI-001/028)

Etxebarri erdi-erdian hiltegi bat egon zen. Etxean jateko zenean, norberak hiltzen zuen ganadua. Bestela hiltegian hil eta harategian saldu.

10. Artoa (EBI-001/031)

Artoa eta indaba asko ereiten zen; Artetan berdin. Taloak eta morokilak egiteko erabiltzen zen artoa. Auzoan bertan egon zen oso errota on bat, baina orain ez dabil. Errioxar batzuek zuten errotaren ardura.

11. Gerra Etxebarrin (EBI-001/035)

Bonbak erori ziren Etxebarrin. Errota badago, hondatuta badago ere. Errotako emakumeak begia galdu zuen gerran. Milizianoak egon ziren herrian.

12. Gerra ostea (EBI-001/037)

Gerra ostean gosea egon zen eta arropa ere eskas. Etxean, arreba zaharrena joskilea zenez, etxerako josten zuen eta eurek ez zuten arropa izateko arazorik izan. Batzuk kartzelara eramán zituzten, beste batzuk (bi koinatu) langileen batailoietara.

13. Galdakao eta Etxebarriko kaminoak (EBI-001/039)

Kamino ona egon zen Galdakaon; dinamita fabrikak aurrera egiten laguntzen zion Galdakaori. Etxebarrin, herritarrek konpontzen zituzten auzoetako bideak. Berak astoa, karroa eta idientzako gurdia eduki zituen. Zorroazko azoka izan zen printzipala.

14. Euskaraz egitea lotsagarri (EBI-003/003)

Euskaraz egiteko aukera askorik ez duela dio. Gaztetan, euskaraz zekitenei barre egiten zieten, lotsa ematen zien euskaraz aritzeak.

15. Gomezena baserriko bizimodua (EBI-003/004)

Gomezena baserrian jaiotakoa da. Abereak zituzten etxean eta esne saltzen ibiltzen zen. Aita eta neba soroak lantzen ibiltzen ziren idiekin.

16. Garai bateko Etxebarri (EBI-003/005)

Etxebarri zelakoa zen deskribatzen du.

17. Etxeko zereginengatik eskola laga behar (EBI-003/006)

Sei urterekin hasi eta hamabirekin utzi behar izan zuen eskola, etxeko zereginengatik. Igandetan mezetara eta dotrinara joaten ziren.

18. Baserritik kalera bizitzera (EBI-003/007)

Baserrian ardura asko izatetik, senarrarekin bakarrik bizitzera pasatu zen. Baserrian egiten zituen lanak azaltzen ditu.

19. Etxeko jatorduak (EBI-003/008)

Baba, txerrikia, porrusalda, azak, esne-zopak, patatak arrautzekin eta arroz-esnea jaten zuten egunero. Asteburuetan garbantzuak eta okela pixka bat izaten zuten.

20. Txakolina ospakizunetarako (EBI-003/009)

Santiago eta San Inazio izaten ziren herriko ospakizunak. San Inazio ospatzen zuten etxean, gonbidatuekin. Txakolina egiten zuten etxean, mahastia baitzeukaten. Zelan egiten zuten azaltzen du.

21. Etxeko frutak (EBI-003/010)

Fruta asko izaten zituzten etxean. Sagarrak, gereziak (saltzeko ere bai), madariak, mahatsa, intxaurrak, urrak izaten zituzten. Urrak lapurtzen ibiltzen ziren umetan zakuetatik. Umetako gaiztakeriak kontatzen ditu.

22. Bilbora oinez (EBI-003/012)

Oinez asko ibiltzen ziren lehen. Bilbora oinez joan zen erditzera. Sagarrak saltzera otarrak hartuta oinez joaten ziren Bilboraino. Santo Tomaseta, oilaskoak eramaten zituzten saltzeko.

23. Sagarrondoak eta sagarrak (EBI-003/013)

Sagarrondoei karea egiten zieten enborrean, zomorroak ez igotzeko. Ganbaran gordetzen zituzten sagarrak ia urte osoan. Ilargiari erreparatzen zioten bilketarako eta inausketarako.

24. Ingurukoak beldurtzen (EBI-003/016)

Aratustek ez zituzten ospatzen, baina jendeak ingurukoak beldurtzeko kontuak egiten zituen.

25. Ohiturak: San Juanak, txarriboda, erre kara eta iturrira joatea (EBI-003/017)

San Juan bezperan eta egunean zituzten ohiturak kontatzen ditu. Txerria hiltzerakoan, etxerik etxe banatzen zituzten puskak. Ur bila iturrira joaten ziren eta, ontziak eta arropak garbitzera erre kara.

26. Ohiturak: eskerako egunak (EBI-003/018)

Soldadu lagunak Santa Ageda eskean aritzen ziren. Urte berri egunean eskean aritzen ziren umeak. Amabitxiaren etxera joaten ziren opilaren bila pazkoetan.

27. Umetako jolasak eta gaiztakeriak (EBI-003/019)

Txakur handi bat izaten zuen igandetan goxokiren bat erosteko. Soka saltoan, "txirimilera" jolasten zuten. Marrubi lapurretan ibiltzen ziren. Igandetan gaztainak harrapatzen joaten ziren. Hamar bat lagun joaten ziren batera, lapurretara. Behin gari saila zapaldu zioten osabari. Anekdotak bat kontatzen du.

28. Bere etxean neskame eta morroirik ez (EBI-003/022)

Bere etxetik inor ez zen neskame joan, senarraren neba-arrebak bai. Arreba bat Arzallusen neskame izan da. Bere neba idiekin ibili izan da beti lanean.

29. Umetan oinutsik (EBI-003/023)

Lehen biderik ez zeukaten eta lokatzatik ibili behar izaten zuten. Zapatak ez zikintzearren, oinutsik joaten ziren bidean gora, euria egiten bazuen. Fruta eta janari berezia kaleraino eramaten zuten eskuan, umetan, besteen aurrean jateko. Pasarte barregarri bat kontatzen du.

30. 1983ko uholdeetako ezbeharrak (EBI-003/025)

1983ko uholdeetan iloba bat hil zitzaion. Etxea urez bete zitzaien.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-03-02

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com